

ARABAKO FORU ALDUNDIA

77 FORU AGINDUA, 1991ko irailaren 14ekoa, Zuiako Arau Subsidiarioetako Altube izeneko Kirol Eskualdeko Plan Bereziaren espedienteari buruzkoa. 7930

DIPUTACION FORAL DE ALAVA

ORDEN FORAL 77 de 14 de setiembre de 1991, en relación con el expediente de Plan Especial de la Zona Deportiva Altube, de las Normas Subsidiarias de Zuya. 7930

Euskal Autonomi Elkarteko Xedapen Orokorrak Disposiciones Generales del País Vasco

HERRIZAINGO SAILA

3066

504/1991 DEKRETUA, irailaren 24ekoa, Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioaren Parke Higikorren iharduerari buruzko arauak ezartzen dituena.

Euskal Autonomi Elkartearen Administrazioako Sailak sortze, ezabatze eta aldatzeari buruzko otsailaren 6ko 15/1991 Dekretuan, Herrizaingo Sailari atxikitzen zaio Parke Higikorra ekintza eremu gisa; eta ekainaren 18ko 372/1991 Dekretuz onartu zen Herrizaingo Sailaren egitura organikoaren barruan, Administrazio eta Lege Araubide Sailordetzari atxikita egongo den Parke Higikorraren Zuzendaritza sortzen da.

Euskal Autonomi Elkarteko Ondareari buruzko uztailaren 27ko 14/1983 Legeko 10. ataleko II. parta-duan, honako hau ezartzen da: Euskal Autonomi Elkarteko Parke Higikorra osatzen duten berebilen gain Euskal Autonomi Elkarteak, edozein titulu dela medio, izan ditzan eskubideak, Euskal Autonomi Elkarteak beteko dituela izan ditzan arauen arabera.

Horiek horrela, Herrizaingo Sailburuaren proposamenez, Lehendakariak onarpena eman ondoren eta Jaurlaritzak 1991ko irailaren 24ean egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATU DUT:

I. ATALBURUA.- PARKE HIGIKORRAZ.

1. *atala.*- 1. Herrizaingo Sailaren barruan egituratuta dagoen eta administrazio mailako unitate bat da Eusko Jaurlaritzaren Parke Higikorra, honako hau dela bere helburua: Euskal Autonomi Elkartearen Administrazioako, Erakunde Autonomoetako eta zuzenbide pribatupeko Baltzu Publikoetako berebil zerbitzuak kudeatzea eta administratzea.

2. Horretarako erosi diren eta, beren izakera berezia dela medio, Sailaren egitekorik nagusienarekin artezko lotura duten zerbitzuak burutu ditzaten berebilak (anbulantziak, nekazaritzarako ibilgailuak, makinaria astuna, etab.), ez dira Dekretu honetan sartzen.

3. Horretarako, Dekretu honetan ematen zaizkion eskuduntzak beteko ditu Parke Higikorrak, Euskal Autonomi Elkarteko Ondarea osatzen duten berebilei dagozkienetan.

4. Aurreko parrafoetan ezartzen direnek ez dute eraginik izango, Eusko Legebiltzarreko auto-zerbitzuetan eta berebiletan.

DEPARTAMENTO DE INTERIOR

3066

DECRETO 504/1991, de 24 septiembre, por el que se establecen normas de funcionamiento del Parque Móvil de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

El Decreto 15/1991, de 6 de febrero, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco atribuye el Parque Móvil como área de actuación al Departamento de Interior, en cuya estructura orgánica, aprobada por Decreto 372/1991, de 18 de junio, se crea la Dirección del Parque Móvil dependiente de la Viceconsejería de Administración y Régimen Jurídico.

La Ley 14/1983, de 27 de julio, del Patrimonio de Euskadi, prevé en el apartado II de su artículo 10 que el conjunto de derechos que la Comunidad Autónoma tenga atribuidos, en virtud de cualquier título, sobre vehículos automóviles que integren el Parque Móvil de Euskadi, será ejercitado según sus normas propias.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Interior, previa aprobación del Lehendakari y deliberación y aprobación del Gobierno en su sesión de 24 de septiembre de 1991,

DISPONGO:

CAPITULO I.- DEL PARQUE MOVIL.

Artículo 1.- 1. El Parque Móvil del Gobierno Vasco es una unidad administrativa, estructurada dentro del Departamento de Interior, que tiene por objeto la gestión y administración de los servicios de automovilismo de la Administración de la Comunidad Autónoma, Organismos Autónomos y Entes Públicos de derecho privado.

2. Se excluyen del presente Decreto aquellos vehículos que, por su especial naturaleza, realicen servicios directamente relacionados con la función principal del Departamento para cuyo fin sean adquiridos (ambulancias, vehículos agrícolas, maquinaria pesada, etc.)

3. A tal fin, el Parque Móvil ejercerá las competencias que derivan de este Decreto, en relación con los vehículos integrados en el Patrimonio de Euskadi

4. Se exceptúan, de lo dispuesto en los párrafos anteriores, los servicios automovilísticos y vehículos correspondientes al Parlamento Vasco.

5. Euskal Autonomi Elkarteko Ertzaintzaren berebilak, Parke Higikorrekak izango dira eta Dekretu honetan ematen diren xedapenak aplikatuko zaizkie, bai erosketari, bai saltzeari eta bai galtzeari dagozkienetan ere. Gainontzekoetan, eurak dituzten arauen arabera jokatu da.

2. *atala.* - Honako zerbitzu hauek dagozkio bereziki Eusko Jaurlaritzako Parke Higikorriari:

a) Goi mailako kargudunen ordezkariak zerbitzuak.

b) Eusko Jaurlaritzaren Sailak, Erakunde Autonomoetako eta Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioaren zuzenbide pribatupeko Baltzu Publikoetako zerbitzu orokorrak eta ohizkoak.

c) Lehen aipatu direnek noizeanbehin eskatu dituzten zerbitzu bereziak.

3. *atala.* - 1. Herrizaingo Sailaren egiturari buruzko Dekretuan ezartzen denaren arabera, Parke Higikorreko Zuzendaritzari dagozkio Parke Higikorren kudeaketa eta administrazioa.

2. Honako egiteko hauek izango ditu Parke Higikorreko Zuzendariak:

a) Berari atxikita dauden zerbitzuek ongi ihardun dezateneko erantzukizuna oro har.

b) Zerbitzurako beharrezkotzat jotako langile plantilaren proposamena egitea horretan agintea duen organuari eta bai langile horiek bete beharreko eginbeharrak eta baldintzak ere.

c) Ihardunerako estrategien proposamenak egitea eta kudeaketari buruzko urteko txostena lantzea.

d) Urteko ihardun eta inbertsio planak lantzea.

e) Berebilen erabilketarako arauen eta funtzionamendu erregimenaren proposamenak egitea.

f) Repuesto almatzena, konponketarako bertako tailerrak eta berebilak mantentzeko argibideak ematea.

g) Eusko Jaurlaritzako Parke Higikorreko zerbitzuak eta hori zaintzeko hornidurak kontratatzeari buruzko oinarri-arau teknikoak onartzea, kontratazio organu bakoitzak dituen eskuduntzen kaltetan gabe eta, kontratazio horien arabera, esleipen proposamena informatzea.

h) Berebilen homologazioa onartzea.

i) Eusko Jaurlaritzako Parke Higikorreko berebilak, Sail ezberdinei, erakunde autonomoei eta zuzenbide pribatupeko baltzu publikoei izenda dakizkieneko proposamenak egitea.

j) Indarrean dauden legeak aplikatzearen ondorioz izan ditzan edo agintari hierarkikoek eman edo delegatzen dituzten eskuduntzak.

4. *atala.* - Hiru zerbitzu eremutan bananduko da Eusko Jaurlaritzako Parke Higikorra 2. atalean ezartzen diren egitekoen arabera eta zerbitzuen eta erabiltzaileen izakera kontutan hartuz:

a) Ordezkariak edo «goi mailako karguak» delakoen eremua.

b) Sail edo instituzio mailako eremua.

c) Ertzain eremua.

Eremu hauetako bakoitzak aurre-erizpen bereziak ditu, zerbitzuez baliatze erregimenari dagozkionetan bereziki.

5. Los vehículos del Cuerpo de Policía de la Comunidad Autónoma quedan integrados dentro del Parque Móvil, aplicándoseles las disposiciones del presente Decreto referentes a su adquisición, enajenación y pérdida. En lo demás se regirán por su propia normativa.

Artículo 2. - Particularmente corresponden al Parque Móvil del Gobierno Vasco los siguientes servicios:

a) Los servicios de representación de los altos cargos.

b) Los servicios generales y ordinarios de los Departamentos del Gobierno, Organismos Autónomos y Entes Públicos de derecho privado de la Administración de la Comunidad Autónoma.

c) Los servicios específicos que ocasionalmente demanden los anteriores destinatarios.

Artículo 3. - 1. Corresponde a la Dirección del Parque Móvil, de conformidad con lo previsto en el Decreto de estructura del Departamento de Interior, la gestión y administración del Parque Móvil.

2. El Director del Parque Móvil asume las siguientes funciones:

a) En general la responsabilidad del buen funcionamiento de los servicios de él dependientes.

b) Proponer al órgano competente la plantilla del personal que estime necesaria para el Servicio y los requisitos y condiciones que debe cumplir dicho personal.

c) Proponer las líneas estratégicas de actuación y elaborar las memorias anuales de gestión.

d) Elaborar los planes anuales de actividad y los planes de inversiones.

e) Proponer las normas de utilización y régimen de funcionamiento.

f) Dictar instrucciones para el mantenimiento del almacén de repuestos, talleres propios de reparación y de los vehículos.

g) Aprobar, sin perjuicio de las competencias que le correspondan al órgano de contratación, las bases técnicas para las contrataciones de servicios y suministros para la atención del Parque Móvil de Gobierno Vasco, y en función de las mismas informar la propuesta de adjudicación.

h) Acordar la homologación de los vehículos.

i) Proponer la asignación de los vehículos del Parque Móvil del Gobierno Vasco a los distintos Departamentos, organismos autónomos y entes públicos de derecho privado.

j) Aquellas otras que le correspondan por aplicación de la legislación vigente, o le sean atribuidas o delegadas por sus superiores jerárquicos.

Artículo 4. - El Parque Móvil del Gobierno Vasco se estructura, conforme a las funciones previstas en el artículo 2, en tres áreas de servicio, atendiendo a la naturaleza de prestación y a sus usuarios:

a) Área de representación o de «altos cargos».

b) Área departamental e institucional.

c) Área policial.

Cada una de estas Áreas responde a singulares presupuestos, fundamentalmente en lo que concierne al régimen de la utilización de los servicios.

II. ATALBURUA.- BEREJILAK EROSTEAZ

5. *atala.*- Parke Higikorreko eremu ezberdinek, Jaurlearitzako Sailek eta zerbitzua hartuko duen bakoitzak izan ditzaten berebil-beharrak aurrez eta derrigorrez informatu egin beharko ditu Eusko Jaurlearitzako Parke Higikorreko Zuzendaritzak. Aurrekontu Orokorrak osatuko dituzten aurrekontu ezberdinen diru-sarrera eta gastuen egoerari buruzko aurrekontuak gertatu baino lehen egin behar da hori eta, horretarako, ekonomi ekitaldirako egon dauden beharrei buruzko memoria bidali beharko da unitate honetara behar bezalako aurrerakizunez.

Lehendakaritza, Lege Araubide eta Autonomi Gara-penerako Saileko Zerbitzu Nagusietako Zuzendaritzak, Eusko Jaurlearitzako Egoitzako eraikinek dituzten gunetan berebilak aparkatzeari eta, hala behar izan dadinean, bakoitzari dagokion plaza izendatzeari buruzko txostena emango du aipatu den aurre-fase horren barruan.

6. *atala.*- 1. Kontratazioari buruzko lege orokorre-tan ezartzen diren prozedurez baliatuz egingo dira berebilak eta repuestoen erosketak. Herrizaingo Sail-buruari dagokio kontratazio espedienteari ebazpena ematea.

2. Eusko Jaurlearitzako Parke Higikorreko Zuzenda-ritzak, baldintza teknikoei buruzko pleguak eratuko ditu espedientea agertarazi baino lehen.

III. ATALBURUA.- BEREJILEZ

7. *atala.*- 1. Parke Higikorrak berebila erosi, ikuska-tu eta matrikulatu ondoren, Parke Higikorreko Berebil-en Erregistroan inskribatuko du unitate horretako Zuzendaritzak, berebilaren agiriak ziurtatu eta berebila aseguruatu ondoren.

2. Berebil-en Erregistroan sartu behar diren argibi-deen edukia eta fitxak, Parke Higikorreko Zuzendari-tzaren zirkular bidez finkatuko dira.

3. Ez da emango berebila erabiltzeko baimenik, Erregistroko fitxa behar bezala beteta egon dadin arte.

8. *atala.*- Honako hauek eman daitezenean gelditu-ko da berebil bat Parke Higikorrean alta eta guzti inskribatuta:

a) Berebil baten jabetza, oso-osoan eskura dadinean.

b) Berebilekiko eskubide errealak eskura daitezenean, nahi denean erabiltzeko ahalmena Euskal Autonomi Elkarteari eman dakionaren baldintzapean.

c) Berebilekiko eskubide pertsonalak eskura daite-zenean, nahi denean erabiltzeko ahalmena Euskal Autonomi Elkarteari eman dakionaren baldintzapean.

d) Berebilekiko jabetza, oso-osoan eskura dadinean, prekario mailan edo inolako titulurik gabe erabiltzeko.

IV. ATALBURUA.- BEREJILAK ERABILTZEAZ

9. *atala.*- Pertsona bati edo zerbitzu jakin bati izen-da dakizkioke Parke Higikorreko berebilak edo zerbitzu puntulaterako edozeinek erabil dezan.

10. *atala.*- Ordezkaritza edo «goi mailaiko karguak» delakoentzako eremuak, Lehendakariari, Lehendakari-riordeari, Sailburuei, Sailburuordeei eta hauen maila-

CAPITULO II.- DE LA ADQUISICION DE VEHICULOS

Artículo 5.- Las necesidades automovilísticas de las distintas áreas del Parque Móvil, así como de los Departamentos del Gobierno y de cada uno de los destinatarios del servicio deberán ser informadas previa y preceptivamente por la Dirección del Parque Móvil del Gobierno Vasco, con anterioridad a la confección de los anteproyectos de estados de ingresos y gastos de los distintos presupuestos que han de conformar los Generales, a cuyos efectos remitirán, a esta unidad, la memoria de necesidades para el ejercicio, con la antelación suficiente.

En la fase previa citada se emitirá informe por la Dirección de Servicios Centrales del Departamento de Presidencia, Régimen Jurídico y Desarrollo Autónomico en el que se decidirá sobre la posibilidad de aparcamiento de los vehículos en los recintos de los edificios Sede del Gobierno Vasco, asignando, en su caso, la plaza correspondiente.

Artículo 6.- 1. La adquisición de los vehículos y sus repuestos se efectuará por los procedimientos regulados en la legislación general sobre contratación. La resolución del expediente de contratación corresponderá al Consejero de Interior.

2. Previamente a la apertura del expediente, la Dirección del Parque Móvil del Gobierno Vasco elaborará los correspondientes pliegos de condiciones técnicas.

CAPITULO III.- DE LOS VEHICULOS

Artículo 7.- 1. Adquirido, inspeccionado y matriculado el vehículo por el Parque Móvil, y comprobada la documentación y asegurado el vehículo, se procederá a su inscripción en el Registro de Vehículos del Parque Móvil, por la Dirección del mismo.

2. El contenido de las anotaciones y fichas del Registro de vehículos se determinará por medio de circular de la Dirección del Parque Móvil.

3. Ningún vehículo será autorizado para su utilización sin que la ficha del Registro esté debidamente cumplimentada.

Artículo 8.- El alta de un vehículo en el Parque Móvil concurre cuando:

a) Se adquiera el dominio pleno de un vehículo.

b) Se adquieran derechos reales sobre vehículos siempre que otorguen a la Comunidad Autónoma la facultad de su total utilización.

c) Se adquieran derechos personales con relación a vehículos siempre que otorguen a la Comunidad Autónoma la facultad de su total utilización.

d) Se adquiera la posesión total de vehículos en concepto de precario o de mera tenencia sin título.

CAPITULO IV.- DE LA UTILIZACION DE LOS VEHICULOS

Artículo 9.- Los vehículos del Parque Móvil podrán ser asignados a una persona o servicio determinado, o bien quedar a disposición de cualquier destinatario para servicios puntuales.

Artículo 10.- El área de representación o de «altos cargos» prestará servicios al Lehendakari, Vicelehendakari, los Consejeros y Viceconsejeros de los Departa-

ko karguak dituztenei eskainiko dizkie zerbitzuak, beren karguei dagokien berebil ofiziala izateko eskubidea izango dutela.

Era berean, Lehendakariak eta Jaurlaritzako gainontzeko kideek, gidaria izateko eskubidea izango dute.

11. atala. - Hurrengo atalean ezartzen den erregimenaren baliokidekoak izango dira Administrazioako goi kargudunak eta konfidantzazko eta aldibaterako langileak, Eusko Jaurlaritzako Parke Higikorreko berebilak erabiltzeari dagozkionetan.

12. atala. - 1. Sail edo instituzio mailako eremuko berebilak, zerbitzu jakin bati izendatu ahal izango zaizkio. Kasu horretan, berebilen Erregistroan inskribatuta utziko da zein izango den ohizko gidaria eta, honek, Parke Higikorreko Zuzendaritzak emandako baimena izan beharko du.

Zerbitzuko egitekoetarako bakarrik erabili ahal izango dira berebil horiek.

2. Herrizaingo Sailburuak egingo du berebilen izendapen pertsonala, berebila behar duen kargua, funtzionaria edo zerbitzua hari atxikita egon dadineko Sailburuak edo Saileko Zerbitzu Zuzendaria arrazoi eta gutzizko eskabidea egin ondoren.

3. Herrizaingo Sailaz besteko Sailen pentzutan erositako berebilen izendapena aldatzeko, beharrezkoa izango da, berebila haren pentzutan erosi zeneko Sailaren baimena izatea.

13. atala. - Zerbitzu puntualetarako, «aukerakoak» izenez ezagutu diren berebil batzuk izango ditu Parke Higikorrek, Parke Higikorreko Zuzendaritzak onartutako inprimakina betez egin beharko dela horietarako eskabidea.

«Aukerakoak» delako berebilak, zerbitzu ofizialetarako bakarrik erabili ahal izango dira eta ez eskabidean aditzera ematen ez diren beste egiteko batzutarako.

14. atala. - 1. Kontuhartzaitzak burutu dezan kontrolaren kaltetan gabe, mantentimendu, erreka eta peaje gastuen kontrola egingo du Parke Higikorreko Zuzendaritzak; horretarako, ezarrita dauden edo Parke Higikorreko Zuzendaritzaren proposamenez, Ogasun eta Finantza Sailak ezarri ditzan instrumentuez baliatuko da Zuzendaritza hori.

2. Aurreko apartaduan aipatu diren eta sail eta instituzio mailako eremuko berebilek izan dituzten gastuak, berebila hari izendatuta dagoeneko edo erabili dadinaren erabakia hartu duen Sailaren edo Erakundearen pentzutan izango dira.

15. atala. - Berebilerik baliatzeari, horiek erabiltzeari eta erregistroan bete beharreko kontrolei buruzko arauak ezarriko ditu Parke Higikorreko Zuzendaritzak. Erabiltzaile guztiek bete beharko dituzte arau horiek.

Lehendakaritza, Lege Araubide eta Autonomi Garapenerako Saileko Zerbitzu Nagusietako Zuzendaritzak, berebil bati, aparkatzeko plaza izendatzea gerta dadinean, dagokion Identifikazio Txartela emango dio, horiek behar bezala erabili daitezeneko kontrola Ertzaintzak burutu beharko duela.

V. ATALBURUA.- BEREBILEN MANTENIMENDUAZ

16. atala. - 1. Parke Higikorreko Zuzendaritzari dagokio, Parke horretako ibilgailuen mantenimendua egitea.

mentos y cargos asimilados, los cuales tendrán derecho a vehículo oficial propio de su rango.

Asimismo, el Lehendakari y los demás miembros del Gobierno tendrán derecho a disponer de conductor.

Artículo 11. - El resto de los altos cargos de la Administración y personal de confianza y eventual se asimilarán en cuanto a la utilización de los vehículos del Parque Móvil del Gobierno Vasco al régimen que al efecto se prevé en el artículo siguiente.

Artículo 12. - 1. Los vehículos del área departamental e institucional podrán ser asignados de forma estable a un servicio determinado. En tal caso se hará constar en la inscripción correspondiente del Registro de vehículos la persona designada para conducirlo habitualmente, la cual deberá contar con una autorización expedida por la Dirección del Parque Móvil.

Dichos vehículos sólo podrán ser empleados para las tareas propias del servicio.

2. La asignación personal de vehículos se efectuará por el Consejero de Interior, previa solicitud motivada por el Consejero o Director de Servicios del Departamento del que dependa el cargo, funcionario o servicio que lo necesite.

3. Para la modificación de la asignación de vehículos adquiridos con cargo a Departamentos distintos del de Interior, se requerirá la autorización del Departamento a cuyo cargo fue adquirido el vehículo.

Artículo 13. - El Parque Móvil mantendrá unos vehículos denominados como «a disposición» para servicios puntuales, los cuales deberán ser solicitados cumplimentando el impreso que sea aprobado por la Dirección del Parque Móvil.

Los vehículos «a disposición» sólo se emplearán para servicios oficiales y no podrán ser usados para funciones distintas a las reflejadas en la solicitud.

Artículo 14. - 1. Sin perjuicio del control interventor, la Dirección del Parque Móvil controlará y efectuará el seguimiento de los gastos de mantenimiento, combustible y peaje por medio de los instrumentos establecidos o que puedan establecerse por parte del Departamento de Hacienda y Finanzas, a propuesta, en su caso, de la Dirección del Parque Móvil.

2. Los gastos citados en el apartado anterior correspondientes a los vehículos del Área departamental e institucional serán de cuenta del Departamento u Organismo al que el vehículo esté asignado o que haya dispuesto de su uso.

Artículo 15. - Por parte de la Dirección del Parque Móvil se procederá al establecimiento de normas sobre uso y utilización de los vehículos, así como al establecimiento de controles de registro, que serán de general observación por todos sus destinatarios.

En los supuestos en que la Dirección de Servicios Centrales del Departamento de Presidencia, Régimen Jurídico y Desarrollo Autonómico hubiere asignado al vehículo plaza de aparcamiento, emitirá la correspondiente Tarjeta de Identificación, correspondiendo a la Ertzaintza el control de la correcta utilización de las mismas.

CAPITULO V.- DEL MANTENIMIENTO DE LOS VEHICULOS

Artículo 16. - 1. Corresponde a la Dirección del Parque Móvil el mantenimiento de la flota de vehículos del mismo.

2. Berebilen konponketak eta aldian-aldiko arakaketak, Parke Higikorreko Zuzendaritzak finkatu dituzan prozedurez baliatuz egingo dira, bertako tailerrak erabiltzeari emango zaio lehentasuna, era horretan, berebilen errentabilitatea segurtatu ahal izateko.

3. Ongi aztertu ondoren, Euskal Autonomi Elkarte-ko hainbat lekutan jarriko dira tailer horiek eta Eusko Jaurlaritzako Parke Higikorreko berebilak bakarrik zainduko dira beroietan.

Berebilen Erregistroan erasota utziko dira, egin daitezkeen konponketa eta ikuskaketak.

17. *atala.* - Parke Higikorreko Zuzendaritzak kudeatuko ditu materileen erosketak, hauen izakera eta zenbatekoa dela medio, kontratazio prozedurari hasera ematea beharrezkoa izan ez dadinean eta Administrazio-koak ez diren pertsonak edo erakundeek egindako mantenimendu eta konponketa zerbitzuak ziurtatu eta bisatu egingo ditu.

18. *atala.* - Berebilak matrikulatu aurreko ikuskaketa eta Dekretu honek hartzen dituen berebilei eta erremolkeei egin behar zaizkien aldian-aldiko ikuskaketak, mantenimenduaren eta erabilpenaren ardura duten erakundeek burutuko dituzte Dekretu hau garatuko duten xedapenen arabera.

19. *atala.* - Atalburu hau garatzeko beharrezkoak izan daitezkeen teknika eta antolaketa mailako aldeak arautu ahal izango ditu Parke Higikorreko Zuzendaritzak, erabiltzaile eta hartzaile guztientzako izango diren zirkularren bidez.

VI. ATALBURUA.- BEREILAK GALTZEAZ ETA SALTZEAZ

20. *atala.* - Parke Higikorrean baja ematea.

Parke Higikorreko berebilen erregistroan baja emango zaie, berebil bat galdu edo erabilezina dela deklaratu dadinean edo saldu dadinean.

Dekretu hau garatuko duten arauetan finkatuko dira berebilen galtze eta erabilezinaren zioak, ondareari buruzko lege orokorretan ezartzen direnak aplikatuko direla horien ezean.

Lehendakaritza, Lege Araubide eta Autonomi Garpenerako Saileko Zerbitzu Nagusietako Zuzendaritzari, Eusko Jaurlaritzaren Egoitzaren eraikinetan aparkatzeko plaza Zuzendaritza horrek eman dieneko berebilen bajaren berri eman beharko zaio.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. - Dekretu hau garatzeko beharrezkoak diren xedapenak emateko esku ematen zaio Herrizaingo Saileko zuzendariari.

Bigarrena. - Dekretu hau, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 1991ko irailak 24.

Lehendakaria,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

Herrizaingo Saileko zuzendari,
JUAN MARIA ATUTXA MENDIOLA.

2. Las reparaciones y revisiones periódicas de los vehículos se llevarán a cabo por los procedimientos que determine la Dirección del Parque Móvil, primando la utilización de los talleres propios a fin de asegurar la rentabilidad de los mismos.

3. Los talleres propios deberán localizarse estratégicamente en distintos puntos de la Comunidad Autónoma y sólo atenderán a los vehículos del Parque Móvil del Gobierno Vasco.

4. Se anotarán las reparaciones y revisiones efectuadas en el Registro de Vehículos.

Artículo 17. - La Dirección del Parque Móvil gestionará las compras de material cuando por su naturaleza o cuantía no se requiera la incoacción de un procedimiento de contratación, así como comprobará y visará las facturas correspondientes a los servicios de mantenimiento y reparación de los vehículos efectuados por personas o entidades ajenas a la Administración.

Artículo 18. - La inspección previa a la matriculación y la periódica que corresponde a los vehículos automóviles y remolques objeto del presente Decreto, se llevará a cabo por los organismos encargados de su mantenimiento y utilización con arreglo a las normas que desarrolle la presente Disposición.

Artículo 19. - La Dirección del Parque Móvil podrá regular a través de circulares para todos los usuarios y destinatarios, aquellos aspectos técnicos y organizativos necesarios en desarrollo del presente capítulo.

CAPITULO VI.- DE LA PERDIDA Y ENAJENACION

Artículo 20. - Baja en el Parque Móvil.

Los vehículos del Parque Móvil serán dados de baja en el registro de vehículos cuando sea declarada su pérdida o inutilidad o se proceda a su enajenación.

Las causas de pérdida e inutilidad se determinarán en las normas de desarrollo del presente Decreto, aplicándose supletoriamente la legislación general sobre patrimonio.

Se comunicará a la Dirección de Servicios Centrales del Departamento de Presidencia, Régimen Jurídico y Desarrollo Autonomo la baja de los vehículos a los que dicha Dirección hubiera asignado plaza de aparcamiento en los edificios Sede del Gobierno Vasco.

DISPOSICIONES FINALES

Primera. - Se faculta al Consejero de Interior para dictar las disposiciones necesarias para el desarrollo del presente Decreto.

Segunda. - El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 24 de septiembre de 1991.

El Lehendakari,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Interior,
JUAN MARIA ATUTXA MENDIOLA.